

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Abrasivos Manhattan, SA enpresarako hitzarmena. 2025-2026 urteak

Ebazpena, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Abrasivos Manhattan, SA enpresentzako hitzarmen kolektiboa erregistratuegin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea 01000022011982.

AURREKARIAK

Aurkeztu da, ordezkartza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko batzordearen negozio-
zio enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, sinatu zutena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintzari honi dagokio, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 18.2.g artikulua arabera,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen , Akordio Kolektibo eta Berdintasun-Planen Erregistro Arabako atalean inskribatu eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 30

Arabako lurralde ordezkaria

IBON LOPEZ ALDAZ

Abrasivos Manhattan, SA enpresarako hitzarmena. 2025-2026 urteak

I. kapitulu. Baldintza orokorrak

1. artikulua. Aplikazio-eremua

Hitzarmen kolektibo honetan bildutako arauak Abrasivos Manhattan, SA enpresaren Vitoria-Gasteizko lantokiko lan-jarduerak arautzen dituzte.

2. artikulua. Langile-eremua

Hitzarmen honek plantilla osoa hartuko du eraginpean, soldata-tauletan azaltzen ez diren lanpostuak izan ezik; hau da, zuzendaritza-karguak eta departamentuetako arduradunak.

3. artikulua. Denbora eremua

Hitzarmen hau 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta bi urte iraungo du; hau da, 2026ko abenduaren 31 arte.

Ekitaldi honetan, hurrengo enpresa-hitzarmena automatikoki salatzea erabaki da.

4. artikulua. Osotasunarekiko lotura

Hitzarmen honetan itundutako baldintzek enpresan eta sektorean lehendik zeuden guztiak konpentsatu eta irentsiko dituzte indarrean sartzen direnetik, horien izena, nolakotasuna edo jatorria edozein izanik ere.

Halaber, ordainsari-kontzeptu guztien edo batzuen aldaketa dakarren etorkizuneko legezko xedapen oro hitzarmen honen baldintzek irentsitzat hartuko da. Horrela, oro har hartuta, urteko kopuruan hitzarmen honen guztizko maila gainditzen dutenek soilik izango dute eraginkortasun praktikoa.

5. artikulua. Ordaintzeko modua

Enpresak banku-erakundeen bitartez egin beharreko banku-transferentzia bidez ordainduko die soldata langileei, hilaren 30ean.

6. artikulua. Arau osagarriak

Hitzarmen honetan aurreikusi gabeko eta hitzarmen honen edukari kontra egiten ez dion guztian Langileen Estatutuak, Beira eta Zeramikaren arloko Estatuko Hitzarmenak eta aplika litezkeen gainontzeko legezko arauak xedatutakoari lotu beharko zaio.

II. kapitulua. Lan-baldintzak**7. artikulua. Lanaldia**

Hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak benetan lan egin beharreko 1.713 ordu urteko lanaldiari dagozkio.

Lanaldiaren zehaztapen praktikoa ekitaldirako lan-egutegian ezarriko da.

8. artikulua. Oporrak

Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren baitako langileek 30 opor-egun izango dituzte.

9. artikulua. Lizentziak eta baimenak

Hitzarmen honek eraginpean hartutako langileek, behar adinako denborarekin jakinarazi eta ondoren justifikatuz gero, baimen ordainduak edukitzeko eskubidea izango dute, Langileen Estatutuaren 37.3 artikuluan edota Beira eta Zeramikaren arloko Estatuko Hitzarmenean azaldutako kasuetan.

10. artikulua. Balioaniztasuna

Hitzarmen honek eraginpean hartutako langileek enpresako maila guztiak barne hartzen dituen lanbide-talde unitarioa osatzen dute.

Lanbide-talde unitario horren barruan, enpresako langile guztien mugigarritasun funtzionala ezartzea erabaki da, giza baliabideen ahalik eta egokitzapen handiena lortzeko; betiere produktio, funtzio edo antolamenduko arrazoi justifikatuak badaude eta aldez aurretik interesdunari eta langileen ordezkariari jakinarazita.

11. artikulua. Lanaren antolamendua

Zuzendaritzari dagokio enpresako atal eta sail guztietako lana antolatzea, eta une bakoitzean indarrean dauden lege-xedapenen arabera arautuko du lana.

III. kapitulua. Araubide ekonomikoa

12. artikulua. Soldata-igoera

2025. eta 2026. urteetarako ordainsari-sistema aurreko urteko (2024) itunean aplikatutako kontzeptu berberetan oinarrituko da, hau da, helburuen arabera ordainsarian, aurreko urteko KPlaren eta benetako laneko 1.713 orduen arabera.

Horrenbestez, estatuko KPlaren arabera soldata-igoera adostu da, urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi ekitaldietan. Bi igoerak 2024. urteko itunaren urteko zenbateko gordinen gainean kalkulatu dira, eta osagarrien, hitzarmen-plusaren eta udako eta Gabonetako aparteko ordainsarien gainean jasanaraziko dira.

Igoera horrekin bat etorriz, 2025eko ekitaldirako soldata-aulak araututa geratzen dira, eta hitzarmen honen eranskinean agertzen dira.

Aurreko urteko KPla negatiboa bada, soldata-tauletan ez da murrizketarik aplikatuko.

13. artikulua. Aparteko pagak

Udako eta Gabonetako aparteko haboroekin kategoria bakoitzari dagozkion soldata-tauletan adierazitako zenbatekoan ordainduko dira, uztailako eta abenduak lehen hamabostaldian, hurrenez hurren.

14. artikulua. Antzintasuna

Antzintasunagatiko osagarri bat ezartzen da, betetako hiru urteko bakoitzeko oinarritzko soldataren ehuneko 3 sortuko duena, ehuneko 18 eta sei hiru urteko mugarekin.

15. artikulua. Garraio-plusa

Lan-egun eta pertsona bakoitzeko 3,20 euroko garraio-plusa ezarri da, ordainduko zaio langile bakoitzari.

16. artikulua. Helburuen arabera ordainsaria

Helburuen arabera ordainsaria honela ezartzen da:

Ados jarrita, kendu egingo da lantokira joateagatiko plus ekonomikoa.

Emaitzak positiboak badira, eta aurreko urtearekin alderatuta laneko ezbehar-tasaren eta/edo giza faktoreko kalitate-ezaren gorabeheren ratio orokorrak hobetzea lortzen bada, bi kontzeptuetako bakoitzeko 600,00 euro gordinetako pizgarriak aplikatzea hartzen da kontuan, hau da, gehienez ere 1.200,00 euro langile bakoitzeko.

Helburuengatiko ordainsari horien sortzapena bi hobekuntza-helburuak modu independentean lortzearen baldintzapean egongo da. Helburu horiek modu kolektiboan neurtuko dira, lanpostuen arloak eta/edo berezitasunak bereizi gabe. Hiru hilean behin, bi kontzeptuen jarraipen-adierazleak argitaratuko dira, eta data horretako fakturazio osoari (pisuari dagokionez) buruzkoak izango dira.

Bi kontzeptu horiek kobratzea lantokira banaka joateari lotuta egongo da, eta kobrantzaren zenbatekoa zehazteko, ekitaldi bakoitzerako lege ezarritako lanegun-kopurutik kenduko dira lanerako ezintasunagatiko absentsia-egunak.

Ezbehar-tasaren helbururako, istripu bakoitzaren kausak langileen ordezkariak eta prebentzio-arduradunak aztertuko dituzte, eta pizgarriak konputagarriak diren erabakiko dute.

Uneko ekitaldian falta astunaren edo handiagoaren idatzizko ohartarazpena irekitzeak zuzenean deuseztatuko du ohartarazpen horren xede den pertsona helburuengatiko edozein ordainsari jasotzeko duen eskubidea.

Helburuen araberako ordainketa-sistema horrek akordio orokor eta zatiezina osatzen du lan egindako orduen, KPlaren eta helburuen araberako ordainsariaren artean.

Helburuengatiko ordainsariak ezin izango dira soldata-tauletan finkatu.

Ordainsari horren banaketa interpretatzean edo aplikatzean desadostasunik sortuz gero, langile interesdunen eta zuzendaritzaren artean ebatziko da.

IV. kapitulua. Laguntza-kontzeptuak

17. artikulua. Laneko istripu- eta bizitza-asegurua

Enpresak laneko istripu- eta bizitza-aseguruaren poliza bat formalizatuko du. Poliza horrek honako kapitulu eta arrisku hauek bermatuko dizkie langileei:

- Bizitza-poliza (edozein arrazoiengatiko heriotza): 21.000,00 euro.
- Istripu-poliza (heriotza): 21.000,00 euro.
- Istripu-poliza (baliaezintasuna): 42.000,00 euro.

18. artikulua. Gabonsaria

Abenduan, enpresak 90,00 euro ordaintzen zituen gabonsari gisa, Gabonetako jaiak zirela eta. 2024ko ekitalditik aurrera, kontzeptu hori desagertu egingo da, eta hileko 12 ordainsari arruntetan zehar ordainduko da, hainbanatuta.

19. artikulua. Erretiro aurreratua

Alderdiek erretiro aurreratuetarako saririk ez ezartzea erabaki dute. Hala ere, enpresak erretiro aurreratuak emateko konpromisoa hartu du, indarrean dagoen legediari jarraiki. Konpromiso hori ez da zabalduko ordezkatzan zailak edo funtsezkoak diren lanpostuak betetzen dituzten langileetara.

20. artikulua. Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarria

Aldi baterako ezintasunaren kasuetan (gaixotasun arruntaren, lan-istripuaren edo lanetik kanpoko istripuaren ondorioz), enpresak Gizarte Segurantzaren prestazioak osatuko ditu soldata errealtaren ehuneko 100era arte. Jaso beharreko soldata likidua ez da izango langileak lanean jarraitu izan balu jasoko zukeena baino handiagoa.

21. artikulua. Medikua-asegurua

Lanpostuetako segurtasuna eta osasuna hobetzeko ekintzen osagarri gisa, eta itxarote-denborak optimizatzeko eta/edo mediku-koadro alternatiboa ordutegi zabalago batean eskuratu ahal izatea sustatzeko, enpresak bere gain hartuko du osasun-aseguru pribatu baten kostua gauzatzeko ordainsari gisa, osasun-estaldura asistentzialaren modalitatean (ebakuntza kirurgikorik gabe) langile guztiei, eta estalduren muga handitzeko eta lehen mailako senideei (bikotekidea eta seme-alabak) zabalatzeko aukera eskainiko die, enpresak negoziatutako poliza kolektiboko baldintzen arabera.

V. kapitulua. Xedapen osagarriak

22. artikulua. Laneko segurtasuna eta higieena

Enpresak onartzen du oso garrantzitsua dela laneko istripuak eta lanbide-gaixotasunak prebenitzea. Hori dela-eta, beharrezkotzat hartzen da arriskuen prebentziorako plan bat ezartzea. Plan horrek lan-baldintzak hobetzen lagunduko du, eta langileak lan-istripuetatik babestera zuzenduta egongo da. Gai horri buruzko xedapen orokorrak aplikatuko dira eta, bereziki, azaroaren 8ko 31/1995 Legea (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea), urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan (Prebentzio Zerbitzuen Araudia), apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretuan (Laneko lekuetako segurtasun eta osasunerako gutxienezko xedapenak) eta gainerako arau aplikagarrietan bildutakoak.

23. artikulua. Osasun azterketak

Hitzarmen honek eraginpean hartutako langileei urtero osasun-azterketa egingo zaie, lanordue-tan. Osasunaren zaintzarako berariazko protokolo aplikagarrien arabera egingo da azterketa hori.

24. artikulua. Batzorde paritarioa

Batzorde paritario bat eratzea adostu da, hitzarmen hau interpretatzean sor daitezkeen zalantza guztiak argitzeko.

25. artikulua. Lan-hitzarmeneko baldintzak ez aplikatzea

Lan-hitzarmen hau sinatu duten aldeek beren gain hartzen dute bertan adostutakoa bete-tzeko betebeharra, eta, beraz, Langileen Estatutuaren 82.3 artikulua ez aplikatzekoa, horretarako berariazko akordiorik gabe.

Gatazka kolektiboen konponketari dagokionez, lan-hitzarmen hau sinatu duten aldeek ados-ten dute Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei (GEP) buruzko Lanbide Arteko Akordioari atxikitzea ontzat hartzea. Adierazitako akordioa 2000ko apirilaren 4ko EHAA-n argi-taratu zen.

Hitzarmen hau interpretatzean eta aplikatzean sortzen diren gatazkei dagokienez, PRECO-n xedatutakoari jarraituz, hitzarmenaren batzorde paritariora jo beharko da lehenbizi.

VITORIA-GASTEIZKO LANTEGIKO 2025EKO SOLDATA-TAULAK							
KATEGORIAK	HILEKO SOLDATA			APARTEKO SARIAK		URTEKO ZENBATEKO GORDINA GUZTIRA, ANTZINATASUNIK GABE	ANTZINATASUNA
	GINARRIZKOA	HITZARMEN PLUSA	GUZTIRA	UDA	GABONAK		HIRURTEKOA
Espezialista	675,00 €	1.745,00 €	2.420,00 €	2.359,00 €	2.359,00 €	33.758,00 €	20,25 €
1. mailako ofiziala (produkzioa)	685,00 €	1.868,00 €	2.553,00 €	2.598,00 €	2.598,00 €	35.832,00 €	20,55 €
1. mailako ofiziala (mantenimendua)	700,00 €	2.148,00 €	2.848,00 €	2.607,00 €	2.607,00 €	39.390,00 €	21,00 €
Planifikazio teknikaria	675,00 €	1.483,00 €	2.158,00 €	2.166,00 €	2.166,00 €	30.228,00 €	20,25 €
T�knikari komertziala	675,00 €	1.383,00 €	2.058,00 €	2.204,00 €	2.204,00 €	29.104,00 €	20,25 €
Administrazio teknikaria	675,00 €	1.302,00 €	1.977,00 €	2.005,00 €	2.005,00 €	27.734,00 €	20,25 €